

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

#### **219/2023 Foru Agindua, ekainaren 23koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoan suaren erabilera arautzen duen foru aginduari**

Uda garaiaren ezaugarriak ditugu giro tenperaturen igoera, eurien eta eguratseko hezetasun ehunekoaren gutxitzea eta eguzki orduen kopuru handiagoa. Faktore horiek guztiek zuzeneko eragina dute landareen hezetasun galeran eta landa ingurunean sutea izateko arrisku indizeen gehikuntzan. Uda sasoiaren gizakiaren jarduera areagotu egiten da landa ingurunean, eta horrek eta kontrako egoerek berekin ekar dezakete larrialdiak areagotzea, hala nola suteak baso eta nekazaritza lurretan.

Mendien martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak 69. artikuluan xedatzen du nahitaez izan behar dela baimena edozein motatako sua pizteko landa lurretan. Mendien Foru Arauaren 65. artikulua eta Mendien azaroaren 21eko 43/2003 Legearen 44. artikulua baimena ematen diote Arabako Foru Aldundian mendien alorrean eskumena duen sailari sute baten hasiera eragin dezaketen jarduerak arautzeko, bai eta, eguraldia edo beste zergati arrazoitu batzuk direla eta, aldi batean landa ingurunean suaren erabilera debekatzeko ere, nahiz eta horretarako egokitutako tokietan izan.

Ekonomia zirkularerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak (Nekazaritza Politika Erkidea eta hari lotutako beste gai batzuk kudeatzeko sistema arautzen duen abenduaren 23ko 30/2022 Legeak aldatua) 27. artikulua 3. apartatuan jasotzen du, oro har, debekatuta dagoela nekazaritza edo baso ingurunean sortutako landare hondakinak erretzea.

Mendien azaroaren 21eko 43/2003 Legeak, abuztuaren 1eko 15/2022 Errege Lege Dekretuak emandako eta irailaren 20ko 17/2022 Errege Lege Dekretuak aldatutako idazketan, honako hau adierazten du 48. artikulua 6. apartatuan:

Meteorologiako Estatu Agentziaren edo, hala badagokio, dagokion organo autonomikoaren informazio meteorologikoaren arabera, zerbitzu hori duten autonomia erkidegoen kasuan, lurralde eremu jakin batean sute arrisku oso handia edo muturrekoa aurreikus daitekeenean, autonomia erkidegoek berehala aplikatu beharko dituzte beren baso suteak prebenitzeko, zaintzeko eta itzaltzeko planetan ezarritako zirkulazio eta sarbide debekuak eta mugak, eta, betiere, honako hauek:

a) Sua piztea mota guztietako espazio irekietan.

b) Uztondoak, larre iraunkorrak, inausketa hondarrak eta baso hondarrak erretzeko emandako baimen guztiak aldi baterako etetea, aipatutako arriskuak irauten duen bitartean.

c) Sua piztea errepide sareko atsedean eremuetan, jolas eremuetan eta kanpatze guneetan, baita horietarako prestatutako guneetan ere.

d) Makinak eta ekipoak erabiltzea mendietan eta haien inguruko 400 metroko zerrendan kokatutako landa eremuetan, haien funtzionamenduak deflagrazioa, txinpartak edo deskarga elektrikoak eragiten baditu, salbu eta Administrazio autonomikoko organo eskudunak haiek erabiltzeko berariazko baimena eman badu edo suteak itzaltzeko beharrezkoak badira.

e) Material piroteknikoa sartzeta eta erabiltzea.

f) Erretzen ari diren objektuak edo sutea sor dezakeen edozein material bota edo bertan behera uztea.

Bestalde, informazioa bildu da Arabako Foru Aldundiaren ardurapean dauden aisiaguneetan zein beste aisiagune batzuetan barbakoak egiteko dauden instalazio finkoen egoerari buruz.

Foru agindu hau izapidetzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak jasotako arautze onaren printzipioei jarraitu zaie, zeinak maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskinaren 3. artikuluan ere jasota baitaude. Foru dekretu horrek hauek onesten ditu: xedapen orokorrak egiteko prozedura, arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak.

Aztertu dira nahitaezko txostenak eta Aholku Batzordeak emandako irizpena ikusi dira, eta Nekazaritza Sailaren Egitura Organikoa eta Funtzionala onesten duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 14/2016 Foru Dekretuak ematen dizkidan eskumenez baliatuz, eta Arabako Foru Aldundiko Sailak 2019-2023 Legegintzaldirako zehazten dituen diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bederatzigarren xedapena aplikatuz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Eremua. Oro har debekatzen da landa ingurune guztian sua erabiltzea, edozein helbururekin dela ere. Landa ingurune izango dira Arabako Lurralde Historikoko leku hauek:

- Zernahi eratako landa lurzorua.
- Mendi publiko zein pribatuak.
- Naturagune babestuak.
- Probintzia edo toki titulartasuneko aisiarako parkeak.
- Arabako Lurralde Historikotik igarotzen diren errepideetako atsedenekuak.

Sua erabiltzeko debeku hori lur horien azalera osorako da, hori guztia Mendiei buruzko azaroaren 21eko 43/2003 Legearen 48. artikulua 6. paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe.

Bigarrena. Aldia. Sua erabiltzeko debekua urte guztian egongo da indarrean.

Hirugarrena. Salbuespenak. Euskalmetek emandako informazioaren arabera, lurralde eremu jakin batean sute arrisku oso handia edo muturrekoa aurreikusi ezin denean, lurralde eremu horretan honako hau baimenduko da:

– Aldez aurretik eskatuta, Nekazaritza Saileko Mendi Zerbitzuak baimentzen duen edozein erabilera. Ukatzeko arrazoia eskatutako erabilerari lotutako sute-arriskua izan beharko da.

– Suteak prebenitzeko egiten diren lanak, hala nola, Mendi Zerbitzuak berariaz baimendutako erreketak kontrolatuak eta agindutako erretzeak, baldin eta horien helburua mendian dagoen baso-erregaiaren kantitatea murriztea eta/edo jarraitutasuna haustea bada. Arrisku-aldi horietatik kanpo, Suhiltzaileen Erakunde Autonomoak baso-suteak itzaltzeko prestakuntza-jarduerak egitea sustatuko da, Mendi Zerbitzuak baimena eman ondoren.

– Urte osoan zehar erabili ahal izango dira foru agindu honen III. eranskinetako parkeen zerrandak dauden erretokiak eta barbakoak, bai eta Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuaren berariazko baimena duten obrako erretokiak ere.

– Iraileko hirugarren astelehenetik ekaineko hirugarren igandera bitartean, sua erabiltzea baimenduta egongo da Arabako Foru Aldundiak kudeatzen dituen aisiaguneetan itxita ez dauden obrako erretokietan eta Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuaren berariazko baimena duten obrako erretokietan.

– Mendi Zerbitzuak berariaz baimendutako erretze kontrolatuak eta prebentzio eginkizunetarako agindutako erretzeak egitea, haien helburua mendiko baso erregaiaren kantitatea murriztea eta/edo jarraitutasuna haustea bada.

Laugarrena. Barbakoen edo erretokien betekizun fisiko orokorrak, Mendi Zerbitzuak baimendu ahal izateko. I. eranskinean zerrendatzen dira.

Bosgarrena. Nahitaezko segurtasun neurriak, erretoki edo barbakoak erabiltzean. II. Eranskina. Neurri zerrenda erretokien erabiltzaileek uneoro ikusteko moduan egon beharko da jarrita.

Seigarrena. Parkeen zerrenda III. eranskinean zehazten da sua erabiltzeko behin-behineko baimena duten parkeen zerrenda. Parke baimenduetako instalazio iraunkorrak dira, berariaz itxita ez daudenak. Zerrenda hori eguneratu ahal izango da Nekazaritza Saileko titularraren foru agindu bidez.

Erretoki edo barbakoaren batek foru agindu honen I. eranskinean ezarritako betekizunak betetzeari uzten badio uneren batean, itxi egin beharko du hura kontserbatzearen eta mantentzearen ardura duen foru administrazio organoak edo toki erakundeak, edo erabiltzeko baimena eman zitzaion pertsona fisiko edo juridikoak.

Zazpigarrena. Neurriak eta zaintza. Lurralde Orekaren Sailari eta Ingurumen eta Hirigintza Sailari eskatzea har ditzatela behar diren neurriak beren ardurapeko aisiaguneetan foru agindu hau betetzeko. Arabako Foru Aldundiko sailek behar diren baliabideak jarriko dituzte barbakoak edo sua egiteko beste edozein instalazio ixteko edo zigilatzeke eta erabiltzaileek nahitaezko segurtasun neurrien zerrenda ikusgai edukitzea bermatzeko. Foru aldundiaren menpean ez dauden barbakoak haiek kontserbatu eta mantentzeko ardura duen erakunde edo norbanako jabeak edo titularrak zigilatuko ditu, eta hark, era berean, nahitaezko segurtasun neurrien zerrenda erabiltzaileek ikusteko moduan egotea bermatuko du.

Zortzigarrena. Nekazaritza eta basogintzako lanak. Mendiei buruzko azaroaren 21eko 43/2003 Legearen 48.6 artikuluan ezarritako murrizketei dagokienez, honako makina astun hauek hartuko dira deflagrazioa, txinpartak edo deskarga elektrikoak eragiten dituzten makineria eta ekipotzat: bulldozerrak, atzerako hondeamakinak, motonibelagailuak, skidder-ak, baso prozesadoreak, sstrakak kentzeko makinak, uzta biltzeko makinak, fardo makinak, xehatzeko makinak edo antzeko ezaugarriak dituen beste edozein, bai eta eskuzko ekipamendu hauek ere: motozerrak eta motodesbrozadoreak, edo antzeko ezaugarriak dituzten beste batzuk. Ondorioz, ezingo dira erabili mendietan eta landa eremuetan, sute arriskua oso handia edo muturrekoa denean, Euskalmeten datuen arabera.

Salbuespen gisa, Mendi Zerbitzuko langileek makina eta ekipo horiek erabiltzeko baimena eman ahal izango dute baso sutea eragiteko arrisku handirik ez dagoela uste den lekuetan eta/edo inguruabarretan, edo haiek suteak prebenitzeko erabiltzen direnean. Basozainek ahoz jakinarazi ahal izango dute baimen hori, eta Mendi Zerbitzura mezu elektronikoko bat bidaliko dute ([montes@araba.eus](mailto:montes@araba.eus)) emandako baimenaren, justifikazioaren eta baldintzen berri emateko (ordutegiak, prebentzio neurriak eta abar).

Nolanahi ere, Nekazaritza Zuzendaritzak berariaz baimendu ahal izango du aipatutako makinak eta ekipoak erabiltzea baso sutea eragiteko arrisku handirik ez dagoela irizten den lekuetan edo inguruabarretan. Horretarako, interesdunak eskaera bat egin beharko dio Mendi Zerbitzuari, eskaera justifikatzen duten inguruabar bereziak adierazita.

Bederatzigarrena. Arau haustek. Foru agindu honetan ezarritako debekuaren urraketak Mendien Foru Arauaren 69. artikuluan xedatutakoaren arabera zigortuko dira, baita Mendiei buruzko azaroaren 21eko 43/2003 Legean xedatutakoa ere.

Hamargarrena. Honako hauei jakinaraztea: Arabako toki erakundeei, Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoari, Vitoria-Gasteizko suhiltzaileei, Ertzaintzari, miñoiei, basozainei, UAGari, nekazarien eta abeltzainen elkartei, baso elkartei, Arabako ehiza barrutien elkartei,

parke naturaletan zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresei, Arabako Mendi Federazioari eta Gobernuaren Arabako Ordezkariordeztzari. Halaber, eskatzen zaie ezarritako gomendioak eta debekuak herritarren artean ahalik eta gehien zabaltzeko, eta, bereziki, agintaritzaren agenteei eta toki erakundeetako agintariei agintzen zaie haiek betetzen direla zaintzeko.

Azken xedapena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 23a

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

*Nekazaritza zuzendaria*

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE

## I. ERANSKINA

Barbakoa edo erretokien betekizun fisiko orokorrak:

Mendi Zerbitzuak erretoki edo barbako bat baimentzeko, betekizun fisiko hauek bete behar ditu:

- a) Egoera onean dagoen obra egitura finkoa izatea.
  - b) Guztiz estalita egotea eta txinpartak itzaltzeko sistema daukan tximinia izatea.
  - c) Obra hormak dituen eraikin baten barruan egotea, oinplanoaren perimetroaren ehuneko 75ean gutxienez. Hormak itxita egon behar dira lurretik teilatura, eta eragotzi egin behar dute sua, ilaunak edo partikula goriak ateratzea.
  - d) Egituraren zorua zolatu artifizialezkoa izan behar da.
  - e) Su har dezakeen erregairik ez daukan perimetro zerrenda bat izatea, distantzia horizontaleko edo murriztuko 3 metro zabalekoa, behintzat.
  - f) Barbakoaren ondoan (eraikinak badira, barruan), sukoia ez den ontzi edo leku bat izatea, sortutako errautsak berariaz jaso ahal izateko bertan. Leku edo ontzi hori erabiltzeko moduan egon beharko da uneoro.
  - g) Tximiniatik zuhaitz hurbilenaren adaburura dagoen distantzia gutxienez 5 metrokoa izan behar da.
  - h) Erretokiak edo barbakoak erabiltzeko nahitaezko segurtasun neurrien zerrenda erabiltzaileen aurrean izatea (II. Eranskina).
- Baldin eta barbakoaren inguruan ez badago suterako arrisku handirik, ez da nahitaez c) puntua bete behar. Hala eginez gero, barbakoaren egitura itxia izan beharko da bere hiru laurdenetan gutxienez.

**II. ERANSKINA**

Nahitaezko segurtasun neurriak, erretoki edo barbakoak erabiltzean:

- a) Ziurtatu behar da 3 metro edo hori baino gehiagoko distantzia dagoela eraikinetik sutea zabaltzeko arriskua daukan edozein erregaitara.
- b) Heze eduki eraikinetik hurbil dagoen landaredia, hura erabiltzen ari den denbora guztian, sutze arriskua murrizteko.
- c) Adi eta suaren ondoan egon, hark piztuta dirauen denbora guztian, eta berehala itzali, edozein arrisku egoera gertatzen bada.
- d) Ez erre hosto, paper, erregai fin eta abarrik, baldin eta haien ilaunak keak eraman badi-tzake. Ikatza baino ezingo da erabili.
- e) Errautsak hotzean jaso behar dira beti, eta erregailuaren ondoan dauden sukoi ez diren ontzietan edo lekuetan utzi behar dira. Ontzi ez-sukoi horiek errautsak uzteko baino ez dira erabiliko.
- f) Ez pilatu erregai gehiegirik, apurka-apurka bota.
- g) Eskura izan nahikoa ur edo sua itzaltzeko baliabide eraginkorren bat, barbakoa piztuta dagoen denbora guztian.
- h) Ziurtatu sua eta txingarrak guztiz itzalita daudela han ez gaudenean.

**III. ERANSKINA**

Fabrika lanez eraikitako eta hormez eta tximiniaz hornitutako instalazioetan –ez badaude espresuki itxita– sua erabiltzeko behin-behineko baimena ematen den parkeen behin-behineko zerrenda:

<b>Parkearen izena</b>	<b>Kokapena</b>	<b>Erakunde titularra</b>
— San Roke	Amurrio	Amurrioko Udala
— La Encina	Artziniega	Artziniegako Udala
— Santa Ana	Laudio	Laudioko Udala
— San Ginés*	Bastida	Bastidako Udala
— Fresnedo	Santikurutze Kanpezu	Kanpezuko AB
— Ostuño	Izarra	Izarrako AB

\* Instalazioetako bi baino ezin dira erabili: barbakoa anizkun handia eta eraikinaren barruan dagoen barbakoa. Debekatuta dago gainerako